## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

**ARABAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, 628 zenbakiko Foru Aginduarena, 1997ko abuztuaren 1ekoa, Elciegoko Udalaren Planeamendurako Ordezko Arauetako AU-2 Sektoreko Zati Egitasmoaren espedienteari buruzkoa. 15351

**BIZKAIKO FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALA**

IRAGARPENA, farmazia-bulego bat berriro instalatzeari buruzko jakinarazpenarena. 15352

## Otros Anuncios Oficiales

**DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 628, de 1 de agosto de 1997, en relación con el expediente de Plan Parcial del Sector AU-2 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elciego. 15351

**COLEGIO OFICIAL DE FARMACÉUTICOS DE BIZKAIA**

ANUNCIO de notificación en relación con la reinstalación de una oficina de farmacia. 15352

# Xedapen Orokorrak

**LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA**

**Zk-4791**

196/1997 DEKRETUA, abuztuaren 29koa, itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenetarako eta lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimenak emateko jardunbidea ezartzeko dena.

Uztailaren 28ko 22/1988 Legeari, Kostaldeari buruzkoa, eta hori garatzeko abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretuak onartutako Arautegiari atxikiz, itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean baimendutako erabilpenek eta lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimenak behar dituzte aurretik, Auzitegi Konstituzionalaren uztailaren 4ko 149/1991 sententziaren arabera, Autonomi Elkarteei dagokiela baimenok emateko aginpidea.

Horretarako, abuztuaren 23ko 1947/1996 Errege Dekretuak Estatuko Administrazioak Euskal Autonomi Elkarteari ingurugiro eta isurketen arloan egitekoak transferitzea xedatu zuen. Ondoren abuztuaren 30eko 216/1996 Dekretuz, transferitutako egitekoak eta zerbitzuak, horietarako baliabideekin batera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxiki zitzaizkion.

Euskal Autonomi Elkarteko itsasertzari dagozkion babes-zorpeko aldean erabilpenak eta uretan isurketak egiteko baimenak emateari buruzko egitekoez baliatzeko, administrazio jardunbidea finkatu behar da, alegia, herritarrek errazago eskuratu eta herri-administrazioen jarduera arautu behar duen eraginkortasun printzipioa betetzen dela bermatu dezana.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE**

**N°-4791**

DECRETO 196/1997, de 29 de agosto, por el que se establece el procedimiento para el otorgamiento de autorizaciones de uso en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre y de vertido desde tierra al mar.

La Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 1471/1989, de 1 de diciembre, someten a autorización previa los usos permitidos en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre y la realización de vertidos desde tierra al mar, autorizaciones que compete otorgar, en todo caso, a las Comunidades Autónomas según reconoció el Tribunal Constitucional en la Sentencia 149/1991, de 4 de julio.

A tal efecto el Real Decreto 1947/1996, de 23 de agosto, dispuso el traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de medio ambiente y vertidos adscribiéndose posteriormente por Decreto 216/1996, de 30 de agosto, las funciones y servicios transferidos junto con sus medios al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

El ejercicio de las funciones relativas al otorgamiento de autorizaciones de uso en la zona de servidumbre de protección y de vertidos en aguas pertenecientes al litoral vasco requiere de un procedimiento administrativo que facilite el acceso de los ciudadanos al mismo y garantice el cumplimiento del principio de eficacia que debe regir la actuación de las administraciones públicas.

Ondorioz, Dekretu honek honako hau finkatzen du: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Sailordetzak, Euskal Autonomi Elkarteko ingurugiro organoa denez, lehorretik itsasorako isurketak, itsasadarretarakoak barne, eta itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenak baimentzeko izapidetza eta emakidarako jarraitu beharreko jardunbidea. Baimen-eskariekin batera kasuan kasuan aurkeztu beharreko agiriak ere ezartzen ditu.

Administrazioaren koordinazio printzipio orokorraren arabera, Dekretuak bideak finkatzen ditu, itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldea hartzeko Estatuko Administrazioaren emakidak behar dituzten eta Euskal Autonomi Elkartearen aginpidetzapekoak diren baimenak batera izapidetzeko beharrezkoak diren bideak, hain zuzen, Kostaldeari buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean eta hura garatzeko emandako Arautegian xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, eta Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 10-31 eta 11.1-a atalak ezarriz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko abuztuaren 29an izandako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.–* Xedea.

Hona hemen Dekretu honen xedea: lehorretik itsasorako isurketak eta itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenak baimentzeko izapidetza eta emakidarako jarraitu beharreko jardunbidea finkatzea, Kostaldeari buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean eta lege hura garatu eta burutzeko emandako abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

*2. atala.–* Organo aginpideduna.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Sailordetzak emango ditu lehorretik itsasorako isurketak eta itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenak egiteko baimenak, Dekretu honen eta ezargarri diren gainerako xedapenen arabera, itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldea hartzeko aginpidedun den Estatuko Administrazioak edo Portu Administrazioak eman beharreko baimen edo emakidez gain.

*3. atala.–* Baimenaren jakinarazpena.

Ingurugiro Sailordetzak, behin emanez gero, lehorretik itsasorako isurketak eta itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenak egiteko baimenak Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunari, Portu Administrazio aginpidedunari eta

El presente Decreto procede, en consecuencia, a fijar el procedimiento a seguir para la tramitación y otorgamiento por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, como Órgano Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de autorizaciones de vertido desde tierra al mar, incluyendo los vertidos en rías, y de uso en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre estableciendo, asimismo, la documentación que deberá acompañarse en cada caso a las solicitudes de autorización.

De acuerdo con el principio general de coordinación administrativa el Decreto establece los mecanismos precisos para la tramitación conjunta de las autorizaciones competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco que requieran el otorgamiento de concesiones por la Administración del Estado para la ocupación de dominio público marítimo-terrestre, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, y su Reglamento de desarrollo.

En su virtud y en aplicación de los artículos 10-31 y 11.1-a del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su Sesión celebrada el 29 de agosto de 1997

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto el establecimiento del procedimiento para la tramitación y otorgamiento de autorizaciones de vertido desde tierra al mar y de uso en la zona de servidumbre de protección, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 22/1988, de 28 de julio, de costas y el Real Decreto 1471/1989, de 1 de diciembre, de desarrollo y ejecución de dicha Ley.

*Artículo 2.–* Órgano competente.

Las autorizaciones de vertido desde tierra al mar y de uso en la zona de servidumbre de protección se otorgarán por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco con arreglo al presente Decreto y demás disposiciones que resulten de aplicación, sin perjuicio de las autorizaciones o concesiones de ocupación del dominio público marítimo-terrestre que deba otorgar la Administración de Estado o la Administración Portuaria competente.

*Artículo 3.–* Notificación de autorizaciones.

La Viceconsejería de Medio Ambiente notificará, una vez otorgadas, las autorizaciones de vertido desde tierra al mar y de uso en la zona de servidumbre de protección al órgano competente de la Administración del Estado, a la Administración Portuaria competente y al

lurraldea dela eta eraginpean dagoen Udalari edo Udalei jakinaraziko dizkie.

*4. atala.*– Erregistroa.

Lehorretik itsasorako isurketak eta itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenak, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzak zaingo eta kontrolerako eratuko duen Erregistroan erroldatuko dira ofizioz.

*5. atala.*– Kontsultak.

Lehorretik itsasorako isurketak eta itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenen izapidetza erraztekotan, Dekretu honek arautzen dituen jardunbideetakoren bati hasiera eman nahi dioten pertsona fisiko edo juridikoek kontsultak egin ahal izango dituzte Ingurugiro Sailordetzan, burutu nahi diren jarduerei buruzko betekizun juridiko edo teknikoen berri izan dezaten.

## II. ATALBURUA

## BABES-ZORPEKO ALDEAN ERABILPENETARAKO BAIMENAK

*6. atala.*– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

Babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko kasuan kasuko Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko dira, eraginpeko lurraldearen arabera, edo Sail horretako Ingurugiro Sailordetzan zuzenean.

*7. atala.*– Agiriak.

Aurkezten diren eskabideek Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako betekizunak bete beharko dituzte eta honako agiri hauek jaso beharko dituzte:

1.– Obra, instalazio edo jardunbideetarako oinarrizko proiektua, hiru aletan.

2.– Udalaren hirigintza egiaztagiria, eskabidean proposatutako erabilpena indarreango planeamenduari egokitzen zaiola egiaztatzen duena.

*8. atala.*– Eskabidea zuzendu eta hobetzea.

Baimenerako eskabidea aurkezten denetik 10 eguneko epearen barruan, Ingurugiro Sailordetzak aztertu egingo ditu aurkeztutako agiriak eta agiriok aurreko atalean finkatutako betekizunak beteko ez balituzte, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio, akatsa zuzendu edo arauzko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko dio horrela egin ezean bere eskaria bertan behera utzi duela joko dela eta artxibatu egingo dela besterik gabe.

*9. atala.*– Ingurunearen gaineko eraginen ebaluaketa.

1.– Proiektutako lanek, instalazioek edo jarduerek ingurugiroaren aldetik interesgarriak diren gune edo barrendegiei eragin baliezaiete, baimenerako eskabidea-

Ayuntamiento o Ayuntamientos que resulten afectados por razón del territorio.

*Artículo 4.*– Registro.

Las autorizaciones de vertido desde tierra al mar y de uso en la zona de servidumbre de protección se inscribirán de oficio en el Registro que a efectos de vigilancia y control creará la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

*Artículo 5.*– Consultas.

Con objeto de facilitar la tramitación de las autorizaciones de vertido desde tierra al mar y de uso en la zona de servidumbre de protección, las personas físicas o jurídicas que se propongan iniciar alguno de los procedimientos regulados en el presente Decreto podrán formular consultas ante la Viceconsejería de Medio Ambiente a fin de ser informados respecto de los requisitos jurídicos o técnicos relativos a las actuaciones que se pretendan realizar.

## CAPÍTULO II

## AUTORIZACIONES DE USO EN LA ZONA DE SERVIDUMBRE DE PROTECCIÓN

*Artículo 6.*– Presentación de solicitudes.

Las solicitudes de autorización de uso en la zona de servidumbre de protección se presentarán ante la Delegación territorial del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco que corresponda por razón del territorio afectado o directamente ante la Viceconsejería de Medio Ambiente de dicho Departamento.

*Artículo 7.*– Documentación.

Las solicitudes que se formulen deberán reunir los requisitos establecidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común y contendrán la documentación siguiente:

1.– Proyecto básico, por triplicado, de las obras, instalaciones o actividades.

2.– Certificado urbanístico municipal que acredite la adecuación del uso propuesto en la solicitud al planeamiento en vigor.

*Artículo 8.*– Subsanación y mejora de la solicitud.

En el plazo de los 10 días siguientes a la presentación de la solicitud de autorización la Viceconsejería de Medio Ambiente examinará la documentación presentada requiriendo al interesado, si aquella no reuniese los requisitos señalados en el artículo anterior, para que en el plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose sin más tramite.

*Artículo 9.*– Evaluación de los efectos sobre el medio.

1.– Cuando las obras, instalaciones o actividades proyectadas pudieran afectar de forma significativa a espacios o elementos de interés naturalístico junto con

rekin batera ingurunearen gaineko eraginaren ebaluaketa eta eragin hori gutxitzeko ohartemandako neurri zuzentzaileak aurkeztu beharko dira.

2.– Aurreko azpiatalean ohartemandako ebaluaketa osoa izango ez balitz edo aurkeztuko ez balitz, Ingurugiro Sailordetzak akatsa zuzentzeko beharrezko epea emango dio interesatuari, eta adieraziko dio horrela egin ezean bere eskaria bertan behera utzi duela joko dela eta artxibatu egingo dela besterik gabe.

*10. atala.*– Irizpenak.

1.– Behin aipatutako izapidea betez gero, Ingurugiro Sailordetzak irizpena eskatuko dio Estatutuko Administrazio aginpidedunari, itsasertzaren barne muga, mugarritze-bide, igarotzeko eta itsasora sartzeko zorpeko aldeen mantenimendu eta lanek, instalazioek edo jarduerek itsas-lehorreko herri jabarian duten eraginari dagokienez.

2.– Aurreko azpiatala dagokion irizpena hile bateko epearen barruan emango da, eta horretarako obra, instalazio edo jarduerетarako oinarrizko proiektua igorriko da. Epe hori bukatutakoan bideratu ez bada, espedientearen izapidetzari jarraituko zaio.

3.– Aurreko azpiatalean jasotzen den irizpena eskatzearekin batera, Ingurugiro Sailordetzak irizpena eskatuko die Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailordetzari eta, lurraldea dela eta, eraginpean dagoen Udalari edo Udalei, hile bateko epearen barruan aurkeztutako baimen-eskariaren gai denaz ebazpena har dezaten. Epe hori bukatutakoan irizpenik ematen ez bada, aldekoa dela joko da.

*11. atala.*– Ebazteko epea.

1.– Babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenen emakida ebazteko epea 4 hilekoa izango da gehienez ere eskabidea aurkezten denetik hasita.

2.– Aurreko azpiatalean aipatutako epea igarotakoan, babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimeneskaria ebazteko erabakirik ematen ez bada, ezetsi egin dela joko da.

*12. atala.*– Itsas-lehorreko herri jabariaren erabilpena.

1.– Eskatutako baimena eta itsas-lehorreko herri jabariaren erabilpena zuzenean lotuta baleude, babeszorpeko aldean erabilpenetarako baimena eman aurretik dagokion administrazio titulua eduki beharko da.

2.– Aurreko azpiatalean ohartemandako kasuan, babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimen-eskariarekin batera itsas-lehorreko herri jabaria hartzeko emakida-titulua edo eskaria aurkeztuko zaio Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunari, bai eta bakoitzerako eskatzen diren agiriak ere, ezargarri den legediaren arabera. Eskari biak bakoitza bere aldetik

la solicitud de autorización deberá presentarse una evaluación de los efectos sobre el medio y las medidas correctoras previstas para minimizar tal incidencia.

2.– En el supuesto de que la evaluación contemplada en el apartado anterior fuera incompleta o no hubiera sido presentada la Viceconsejería de Medio Ambiente concederá al interesado un plazo de tiempo suficiente para subsanar la falta con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose sin más trámite.

*Artículo 10.*– Informes.

1.– Una vez cumplimentado el trámite anterior la Viceconsejería de Medio Ambiente solicitará informe del órgano competente de la Administración del Estado, en cuanto a la delimitación del límite interior de la ribera del mar, línea de deslinde, mantenimiento de las servidumbres de transito y acceso al mar e incidencia de las obras, instalaciones o actividades sobre el dominio público marítimo-terrestre.

2.– El informe a que se refiere el apartado anterior se emitirá en el plazo de un mes a cuyo fin se remitirá la documentación consistente en el proyecto básico de las obras, instalaciones o actividades. Transcurrido dicho plazo sin haberse evacuado, se proseguirá la tramitación del expediente.

3.– Simultáneamente a la petición del informe contemplado en el artículo anterior la Viceconsejería de Medio Ambiente, solicitará informe de la Viceconsejería de Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno Vasco y del Ayuntamiento o Ayuntamientos afectados por razón del territorio a fin de que, en el plazo de un mes, se pronuncien sobre el objeto de la solicitud de autorización presentada. Transcurrido dicho plazo sin haberse formulado el informe éste se entenderá favorable.

*Artículo 11.*– Plazo para resolver.

1.– El plazo máximo para resolver el otorgamiento de las autorizaciones de uso en la zona de servidumbre de protección será de 4 meses desde la fecha de presentación de la solicitud.

2.– Transcurrido el plazo señalado en el apartado anterior sin haberse dictado resolución la solicitud de autorización de uso en la zona de servidumbre de protección se entenderá desestimada.

*Artículo 12.*– Utilización del dominio público marítimo-terrestre.

1.– Si la actividad solicitada estuviese vinculada directamente a la utilización del dominio público marítimo-terrestre será necesario disponer del correspondiente título administrativo con carácter previo al otorgamiento de la autorización de uso en zona de servidumbre de protección.

2.– En el supuesto contemplado en el apartado anterior, junto a la solicitud de autorización de uso en zona de servidumbre de protección se presentará el título concesional o la solicitud de concesión de ocupación del dominio público marítimo-terrestre dirigida al órgano competente de la Administración del Estado, acompañando la documentación requerida para una y otra pre-

izapidetuko dira, Dekretu honen III. Atalburuan xedatutakoaz gain.

III. ATALBURUA

LEHORRETIK ITSASORAKO ISURKETAK EGITEKO BAIMENAK

*13. atala.*– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

Isurketak egiteko eta, hala badagokio, babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimen-eskaria, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko kasuan kasuko Lurralde Ordezkaritzan, eraginpeko lurraldearen arabera, edo zuzenean Sail horretako Ingurugiro Sailordetzan aurkeztu beharko da, Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunari igorritako itsas-lehorreko herri jabaria hartzeko emakida-titulu edo eskariarekin batera.

*14. atala.*– Agiriak.

Aurreko atalean ohartemandako eskariekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, lau aletan:

1.– Itsas-lehorreko herri jabaria hartzeko emakida-eskariarekin batera Kostaldeari buruzko indarreango Legean eta hori garatzeko arautegian eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– Babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimen-eskariarekin batera Dekretu honen 7. atalean ohartemandako hirigintza egiaztagiria aurkeztu beharko da.

3.– Isurketa egiteko baimen-eskariarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

3.1.– Memoria, hauexek jasoko dituena, behar bezala bereizitako ataletan:

– Jardueraren sailkapena (CNAE kodea) eta karakterizazioa, erabilitako lehengaiak, laguntzarako gaiak, gehigarriak, disolbatzaileak etabarrak eta kontsumitutako kopuruak, egindako produktuak eta kopurua zehaztuta.

– Urari buruzko urteko balantzea:

* Kontsumitutako urak: jatorria, ur-emaria (batezbestekoa egunero, hilero eta gehienera), ezaugarriak eta konposizioa.
* Galdutako urak: produktuari atxikiak, lurrinduak, beste batzuk.
* Isuritako urak (hustuak): prozesu, sanitate, hozketa, euri eta bestelako urak.

– Fabrikazio prozesuaren jarioaren diagrama eta sortutako isuriak.

– Azken isurketaren kopuru eta kalitate aldeko ezaugarriak, parametro adierazgarrien gehienezko kontzentrazioak zehaztuta. Biltodiek isuritako karga kutsatzaileen adierazpena, batezbesteko egunerokoak, hilekoak, eta gehienezkoak.

tensión de conformidad con la legislación aplicable. Ambas solicitudes serán objeto de tramitación separada sin perjuicio de lo dispuesto en el Capítulo III de este Decreto.

CAPÍTULO III

AUTORIZACIONES DE VERTIDO DESDE TIERRA AL MAR

*Artículo 13.*– Presentación de solicitudes.

La solicitud de autorización de vertido y en su caso la de uso en la zona de servidumbre de protección se presentará ante la Delegación Territorial del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco que corresponda por razón del territorio afectado o directamente ante la Viceconsejería de Medio Ambiente de dicho Departamento, acompañada del título concesional o de la solicitud de concesión de ocupación del dominio público marítimo-terrestre dirigida al órgano competente de la Administración del Estado.

*Artículo 14.*– Documentación.

La documentación que, por cuadruplicado, deberá acompañar a las solicitudes contempladas en el artículo anterior, será la siguiente:

1.– La solicitud de concesión de ocupación del dominio publico marítimo-terrestre deberá acompañarse de la documentación requerida por la vigente Ley de Costas y su reglamento de desarrollo.

2.– La solicitud de autorización de uso en la zona de servidumbre de protección deberá acompañar el certificado urbanístico contemplado en el artículo 7 de este Decreto.

3.– La solicitud de autorización de vertido deberá acompañar la siguiente documentación.

3.1.– Memoria, que incluirá en capítulos debidamente diferenciados:

– Clasificación (código CNAE) y caracterización de la actividad con indicación de materias primas, materias auxiliares, aditivos, disolventes, etc. utilizadas y cantidades consumidas, productos fabricados y cantidad.

– Balance anual de agua:

* Aguas consumidas: procedencia, caudal (medio diario, mensual y máximo), características y composición.
* Aguas perdidas: incorporadas al producto, evaporadas, otras.
* Aguas vertidas (evacuadas): aguas de proceso, sanitarias, de refrigeración, pluviales, otras.

– Diagrama de flujo del proceso de fabricación y afluentes producidos.

– Características cuantitativas y cualitativas del vertido final con expresión de las concentraciones máximas de los parámetros más significativos. Expresión de las cargas contaminantes medias diarias, mensuales y máximas vertidas por los distintos colectores.

– Hondakin urak tratatzeko metodoak eta instalazioen deskribapena. Horiek hautatzeko arrazoiak, metodoaren oinarriak, materiaren balantzea eta aurrikusitako etekinak.

– Arazteko instalazioen funtzionamenduaren kontrolerako elementuak.

– Araztegi edo biltegietan akatsak direla eta sor daitezkeen ustekabeko isurketak sahiesteko segurtasunneurriak.

– Isurketak ingurune jasotzailean duen eraginaren ebaluaketari buruzko azterlana.

– Isurketen zaingo eta kontrolerako plana.

3.2.– Planoak:

– Kokapen orokorraren planoa (1:25.000) eta tokikoa (1:5.000).

– Plano zehatza (1:2.000 edo 1:1.000), honako hauen kokapena barne: ura jaso eta banatzekoa, araztegiaren edo araztegiena, tratamendurako plantenak, husteko drenaje-sarearena (prozesu, sanitate eta euri urak) eta isurketaren azken puntua edo puntuarenak barne, horien U.T.M. koordenatuak zehaztuta, 5 m-ko zehaztasunez (1mm, 1:5.000 eskalan). Produkzio nabeak eta produktuak bildu eta kokatzeko baldintzak ere adieraziko dira.

Aipatutako azpiatalen bat edo batzuk ez badira memorian sartzen, arrazoitu egin beharko da zergatik.

3.3.– Aurreko azpiataletan jasotako agiriekin batera, uztailaren 13ko Aginduak, lehorretik itsasorako isurketak bideratzeko proiekturako artezpidea onartzen duena, kasuan kasuko proiektua idazteko eskatzen dituenak aurkeztu beharko dira.

*15. atala.–* Eskabidea zuzendu eta hobetzea.

Baimenerako eskabidea aurkezten denetik 10 eguneko epearen barruan, Ingurugiro Sailordetzak aztertu egingo ditu aurkeztutako agiriak eta agiriok beteko ez balituzte aurreko atalean finkatutako betekizunak, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio, akatsa zuzendu edo arauzko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko dio horrela egin ezean bere eskaria bertan behera utzi duela joko dela eta artxibatu egingo dela besterik gabe.

*16. atala.–* Irizpen-eskaria.

1.– Behin aipatutako izapidea betez gero, Ingurugiro Sailordetzak irizpena eskatuko die ondoan aipatzen diren erakundeei:

a) Lurraldea dela eta eraginpean dagoen Udala edo Udalak.

b) Estatutuko Administrazio aginpideduna, Dekretu honen 10-1 atalean ohartemandakorako.

c) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, isurketak bainualdeari eragiten badio.

d) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailordetza.

– Métodos de tratamiento de las aguas residuales y descripción de las instalaciones. Justificación de su elección, fundamentos del método, balance de materia y rendimientos previstos.

– Elementos de control de funcionamiento de las instalaciones de depuración.

– Medidas de seguridad en evitación de vertidos accidentales que pudieran producirse por fallos en las instalaciones de depuración o almacenamiento.

– Estudio de evaluación de los efectos del vertido sobre el medio receptor.

– Plan de vigilancia y control del vertido.

3.2.– Planos:

– Plano de ubicación general (1:25.000) y local (1:5.000).

– Plano detallado (1:2.000 o 1:1.000) que incluya situación de la captación y distribución de agua, ubicación de la(s) depuradora(s), plantas de tratamiento, red de drenaje (aguas de proceso, sanitarias y pluviales) de evacuación y punto(s) final(es) de vertido, con indicación de sus coordenadas U.T.M. con precisión de 5 m (1mm a escala 1:5.000). Asimismo, se reflejarán las distintas naves de producción y condiciones de almacenamiento y ubicación de productos.

Cuando alguno o algunos de los apartados anteriores no se incluya en la memoria deberá justificarse debidamente en la misma.

3.3.– La documentación expresada en los apartados anteriores deberá complementarse con la exigida para la redacción del correspondiente proyecto por la Orden de 13 de julio de 1993, por la que se aprueba la Instrucción para el proyecto de conducciones de vertido desde tierra al mar.

*Artículo 15.–* Subsanación y mejora de la solicitud.

En el plazo de los 10 días siguientes a la presentación de la solicitud de autorización la Viceconsejería de Medio Ambiente examinará la documentación presentada requiriendo al interesado, si aquella no reuniese los requisitos señalados en el artículo anterior, para que en el plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose sin más tramite.

*Artículo 16.–* Petición de informes.

1.– Una vez cumplimentado el trámite anterior, la Viceconsejería de Medio Ambiente solicitará el informe de los organismos que se citan a continuación:

a) Ayuntamiento o Ayuntamientos que resulten afectados por razón del territorio.

b) Órgano competente de la Administración del Estado a los efectos previstos en el artículo 10-1 de este Decreto.

c) Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco en caso de que el vertido afecte a una zona de baño.

d) Viceconsejería de Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno Vasco.

e) Arrantza Sailordetza, arrantza-baliabideetan eragina eduki dezakeenean.

f) Beste erakunde batzuk, hauen irizpena egokitzat jotzen badu Ingurugiro Sailordetzak.

2.– Aurreko azpiatalean aipatzen diren irizpenak hile bateko epearen barruan eman beharko dira, epe hori bukatutakoan, irizpenik bideratzen ez bada, aldekoak direla joko da, eta espedientearen izapidetzari jarraituko zaio.

3.– Atal honetako 1. azpiatalean jasotzen diren irizpenak eskatzearekin batera, jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea erabakiko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarpena jarriz, espedientea aztertu eta edozein pertsona fisiko edo juridikok alegazioak aurkez ditzan.

*17. atala.*– Bidegarritasunaren ebaluazioa.

Behin aurreko atalean jasotako irizpenak emanez gero, edo emateko epea bukatutakoan eman ez badira, eta jendaurrean jarri ostean, Ingurugiro Sailordetzak isurketa egiteko baimenaren emakidaren bidegarritasuna ebaluatuko du, eta honako erabakiren bat hartu ahal izango du:

1.– Isurketa egiteko eta, hala badagokio, babes-zorpeko aldean erabilpenerako baimenaren berariazko eta arrazoitutako ezespena, interesatuari entzunaldia eman ondoren.

2.– Espedientearekin aurrera jarraitzea, hartzen den azken erabakiaren zentzua gorabehera.

*18. atala.*– Beste irizpen batzuk.

1.– Ingurugiro Sailordetzak espedientearen izapidetzari jarraitzea erabakiko balu, Estatuko Administrazioaren erakundeei arauzkoak izan daitezkeen irizpideak eskatuko dizkie, Kostaldeari buruzko Legea garatu eta burutzeko abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretuaren 146-6.2. atalean ezarritakoaren arabera.

2.– Hile bateko epea igarotakoan, ez badira aurreko azpiatalean aipatutako irizpenak eman, espedientearen izapidetzari jarraituko zaio.

*19. atala.*– Okupazioaren bidegarritasuna.

1.– Hala behar izanez gero, aurreko atalean aipatutako irizpenak emandakoan edo emateko epea igarota ematen ez badira, Ingurugiro Sailordetzak espediente osoa igorriko dio Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunari, 2 hileko epearen barruan irizpena eman dezan, itsas-lehorreko jabari publikoa hartzeko emakidaren bidegarritasunari buruzko iritzia jasoko duena, bai eta, emanez gero, emango zen baldintzak ere.

2.– Aurreko azpiatalean ohartemandako irizpena aurkakoa izango balitz, Ingurugiro Sailordetzak amaiera emango dio isurketa egiteko baimenaren jardunbideari eta, hala badagokio, babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenarenari ere bai. Horretarako, admi-

e) Viceconsejería de Pesca cuando puedan verse afectados los recursos pesqueros.

f) Otros organismos cuyo informe se estime conveniente, a juicio de la Viceconsejería de Medio Ambiente.

2.– Los informes a que se refiere el apartado anterior se emitirán en el plazo de un mes transcurrido el cual sin haberse evacuado se entenderán favorables, prosiguiéndose la tramitación del expediente.

3.– De forma simultánea a la solicitud de los informes señalados en el apartado 1 de este artículo se acordará un periodo de información pública durante el plazo de 20 días, mediante anuncio inserto en el Boletín Oficial del País Vasco, al objeto de examinar el expediente y formular alegaciones por cualquier persona física o jurídica.

*Artículo 17.*– Evaluación de viabilidad.

Una vez emitidos los informes previstos en el artículo anterior o transcurrido el plazo para hacerlo sin haberse emitido y practicado el periodo de información pública, la Viceconsejería de Medio Ambiente evaluará la viabilidad del otorgamiento de la autorización de vertido pudiendo adoptar alguna de las siguientes decisiones:

1.– Denegación expresa y motivada de la autori zación de vertido y en su caso, de la de uso en la zona de servidumbre de protección previa audiencia del interesado en el expediente.

2.– Continuación del expediente sin perjuicio del sentido de la resolución final que se adopte.

*Artículo 18.*– Otros informes.

1.– Si la Viceconsejería de Medio Ambiente decidiera continuar la tramitación del expediente solicitará de los organismos de la Administración del Estado los informes que resulten preceptivos de acuerdo con lo establecido en el artículo 146-6.2.º del Real Decreto 1471/1989, de 1 de diciembre, de desarrollo y ejecución de la Ley de Costas.

2.– Transcurrido el plazo de un mes sin haberse emitido los informes señalados en el apartado anterior se proseguirá la tramitación del expediente.

*Artículo 19.*– Viabilidad de la ocupación.

1.– Una vez emitidos, en su caso, los informes señalados en el artículo anterior o transcurrido el plazo para hacerlo sin haberse emitido la Viceconsejería de Medio Ambiente dará traslado del expediente completo al órgano competente de la Administración del Estado a fin de que en el plazo de 2 meses emita un informe que incluirá su pronunciamiento sobre la viabilidad de la concesión de ocupación del dominio público marítimo-terrestre, así como las condiciones en que ésta, en su caso, se otorgaría.

2.– En el supuesto de que el informe contemplado en el apartado anterior fuera negativo la Viceconsejería de Medio Ambiente pondrá fin al procedimiento de autorización de vertido, y en su caso al de autorización de uso en la zona de servidumbre de protección,

nistrazio erabakia emango litzateke, interesatuari entzun ondoren.

*20. atala.–* Baldintzen eskaintza.

1.– Dekretu honen 19-1 atalean ohartemandako irizpena aldekoa izango balitz, Ingurugiro Sailordetzak, isurketa egiteko edo babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenak emango lituzkeen baldintzekin batera, Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunak okupazioaren emakidarako aurkeztu dituen baldintzak eskainiko dizkio eskari-egileari.

2.– Eskari-egileak hamar eguneko epea izango du aipatutako baldintzak osoan onartzeko. Ez balu adierazpenik egingo edo eskainitako baldintzak onartuko ez balitu, espedientea amaitutzat joko da, uko egitearren

3.– Eskari-egileak idatziz onartuko ditu eskainitako baldintzak, eta isurketa egiteko baimenerako eskatzen den fidantza eratu dueneko egiaztagiria ere aurkeztu beharko du.

*21. atala.–* Emakidaren onespena.

Aipatutako baldintzak osoan onartuz gero, Ingurugiro Sailordetzak jakinarazi beharko dio hori Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunari, itsas-lehorreko jabari publiko hartzeko kasuan kasuko emakida eman dezan.

*22. atala.–* Emakidaren igorpena.

Hartzeko emakida behin emanez gero, Estatuko Administrazioaren organo aginpidedunak emakidaren titulua igorriko dio Ingurugiro Sailordetzari, isurketa egiteko edo, hala badagokio, babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenaz bidezko den erabakia eman dezan.

*23. atala.–* Ebazteko epea.

Atalburu honetan arautzen den jardunbidea ebazteko epea 10 hilekoa izango da gehienez ere. Epe hori bukatutakoan, erabakirik ematen ez bada, isurketa egiteko edo, hala badagokio, babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimen-eskariak ezetsitzat joko dira, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. atalean ohartematen den egiaztagiria eman edo horretarako epea igaro ondoren.

*24. atala.–* Isurketa egiteko baimenaren eraginkortasuna.

Isurketa egiteko baimenaren eraginkortasuna bertan ezarritako baldintza eta betekizunak betetzearen menpe egongo da, eta ezin izango da isurketa egin betetze hori Ingurugiro Sailordetzan egiaztatu arte eta honek kasuan kasuko egiaztapena eta akta egin ondoren agiri bidez onartu arte.

mediante Resolución administrativa y previa audiencia al interesado.

*Artículo 20.–* Oferta de condiciones.

1.– Si el informe contemplado en el artículo 19-1 de este Decreto fuera favorable la Viceconsejería de Medio Ambiente ofertará al peticionario conjuntamente con las condiciones en que, en su caso, otorgaría la autorización de vertido o de uso en la zona de servidumbre de protección, las condiciones que el órgano competente de la Administración del Estado haya formulado para la concesión de ocupación.

2.– El peticionario dispondrá de un plazo de diez días para aceptar en su totalidad las referidas condiciones declarándose concluido el expediente por desistimiento en el caso de que no hiciera manifestación alguna o no aceptara las condiciones ofertadas.

3.– El peticionario aceptará las condiciones ofertadas por escrito, adjuntando el resguardo acreditativo de la constitución de la fianza exigida para la autorización de vertido.

*Artículo 21.–* Otorgamiento de la concesión.

En caso de ser aceptadas las referidas condiciones en su totalidad, la Viceconsejería de Medio Ambiente comunicará tal extremo al órgano competente de la Administración del Estado a efectos de que se otorgue la oportuna concesión de ocupación de dominio público marítimo-terrestre.

*Artículo 22.–* Remisión de la concesión.

Una vez otorgada la concesión de ocupación el órgano competente de la Administración del Estado remitirá el título concesional a la Viceconsejería de Medio Ambiente para que dicte la resolución que proceda sobre la autorización de vertido o en su caso la de uso en la zona de servidumbre de protección.

*Artículo 23.–* Plazo para resolver.

El plazo máximo para resolver el procedimiento regulado en este Capítulo será de 10 meses transcurrido el cual sin haberse dictado resolución la solicitud de autorización de vertido y en su caso, la de uso en zona de servidumbre de protección, se entenderán desestimadas, previa emisión de la certificación prevista en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o transcurrido el plazo al efecto.

*Artículo 24.–* Efectividad de la autorización de vertido.

La efectividad de la autorización de vertido quedará subordinada al cumplimiento de todas las condiciones y requisitos establecidos en la misma, no pudiendo efectuarse tal vertido hasta que dicho cumplimiento sea acreditado ante la Viceconsejería de Medio Ambiente y aceptado documentalmente por ésta previa la oportuna comprobación y levantamiento del acta correspondiente.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honetan berariaz arautzen ez den guztiari Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen aginduak izango zaizkio ezargarri.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Dekretu hau indarrean jartzen denetik sei hileko epearen barruan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak isurketa egiteko eta babes-zorpeko aldean erabilpenetarako baimenak emateko baldintza orokorren pleguak onartuko ditu.

*Bigarrena.–* Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari eskumenak ematen zaizkio Dekretu hau garatu eta burutzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Hirugarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau

Donostia-San Sebastiánen, 1997ko abuztuaren 29an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde, Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En todo lo no regulado expresamente en el presente Decreto serán de aplicación las disposiciones de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* En el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco aprobará los pliegos de condiciones generales para el otorgamiento de autorizaciones de vertido y de uso en la zona de servidumbre de protección.

*Segunda.–* Se faculta al Consejero del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente para dictar las disposiciones que sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Tercera.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 29 de agosto de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda
y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### SESTAOKO UDALA

### Zk-4792

IRAGARPENA, Udaltzaingoaren Buruzagitarako Ofizial baten lanpostua, lehiaketa bidez eta barne promozioz betetzeari buruzkoa.

Xedatuta daudenei jarraituz, zera ematen da argitara: Udalbatzak 1997ko uztailaren 10ean egin zuen osoko bilkuran, ondoren aipatzen den akordio hau hartu zuela:

1.– Udaltzaingoaren Buruzagitarako Ofizial baten lanpostua lehiaketa bidez betetzea, lanpostuen zerrendan betetzeke dagoelako.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### AYUNTAMIENTO DE SESTAO

### N°-4792

ANUNCIO relativo a la provisión interna, mediante concurso, de un puesto de trabajo de Oficial Jefe de la Policía Municipal.

De conformidad con lo establecido, se hace público que el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 10 de julio de 1997, adoptó el siguiente acuerdo:

1.– Cubrir mediante concurso el puesto de trabajo denominado Oficial Jefe de la Policía Municipal, vacante en la Relación de Puestos de Trabajo.